



## LAGUNTZAREN BALDINTZAK EZARTZEN DITUEN DOKUMENTUA

Lehiatu Berriaren laguntzen onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. – Diruz lagundu daitekeen inbertsioa emakida-ebazpenean eta, hala badagokio, luzapen-ebazpenean ezarritako epean gauzatzea.

*Hauek dira gauzatzeko gehieneko epeak:*

1. – *Urteko inbertsioak egiteko epea laguntza-deialdiaren ekitaldiko abenduaren 31n amaituko da. Nolanahi ere, luzatu egin ahal izango da, gehienez ere urtebetez.*

2. – *Urte anitzeko inbertsioak gauzatzeko gehieneko epea laguntza-deialdiaren hurrengo ekitaldiko abenduaren 31 izango da. Nolanahi ere, epe hori beste urtebete luzatu ahal izango da.*

2. – Dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.

3. – Establezimendu berrien kasuan, ezinbestekoa da NEIEn erregistratuta egotea laguntzaren azken ordainketa eskatu aurretik.

4. – Ekipamendu informatikoen kasuan, onuradunari azken ordainketa egin eta, gutxienez, hurrengo 5 urteetan aktibo mantendu beharko dira inbertsioak, eta gainerako ondasun higigarrien kasuan, ordainketa osoa egin eta hurrengo 7 urteetan. Ondasun higiezinen kasuan, 10 urte, Jabetza Erregistroan inskribatzen direnetik; epe horretan ezin izango dira ez besterendu, ez amortizatu, ez diruz laguntzen den helbururako barik beste baterako erabili.

5. – Lehiatu Berria deialdi-aginduaren IV. kapituluko laguntzen kasuan, onuradunak 508/2014 (EB) Erregelamenduaren 10.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu eragiketa gauzatzen ari den bitartean eta azken ordainketa egin eta hurrengo 5 urteetan.

### *10. artikulua. Eskabideen onargarritasuna*

1. *Operadoreek aurkeztutako eskaerek ezin izango dute IAEFen laguntza jaso denboratarte jakin batean, artikuluko honen 4. paragrafoarekin bat etorritako, baldin eta estatu kideko agintaritzak eskudunak egiaztatu badu kasuan kasuko operadoreek:*

a) *arau-hauste larria egin badute, Kontseiluaren 1005/2008/EE Erregelamenduko 42. artikulua arabera (1) edo 1224/2009/EE Erregelamenduko 90. artikuluko 1. paragrafoaren arabera;*

b) *1005/2008/EE Erregelamenduaren 40. artikulua 3. paragrafoan jasotako Batasuneko INDNR ontzien zerrendan sartuta dauden arrantza-ontzien edo Erregelamendu horren 33. artikuluan ezarritakoaren arabera hirugarren herrialde ez-*



*lankideen pabiloian dauden arrantza-ontzien ustiaketan, kudeaketan edo jabetzan inplikaturata egon badira;*

*c) APBren arau-hauste larriak egin badituzte, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak onartutako beste legegintza-egintza batzuetan halakotzat definituak, edo*

*d) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/99/EE Zuzentarauaren (2) 3. eta 4. artikuluetan ezarritako delituren bat egin izana, Erregelamendu honen II. kapituluko V. tituluaren arabera laguntza-eskaera bat aurkezten denean.*

*2. Onuradunak 1. paragrafoko a) letratik d) letrara bitartekoetan jasotako baldintzak betetzen jarraitu beharko du eskaera aurkeztu ondoren eta eragiketa gauzatzeko aldi osoan eta onuradun horri azken ordainketa egin eta bost urteko epean.*

6. – Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari jakinaraztea diruz lagundutako proiektua partzialki edo osorik gauzatu dela, eta haren esku jartzea hura gauzatu dela egiaztatzeko behar diren agiri guztiak.

7. – Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari jasotako laguntzak nola erabili diren eta haien helburuak bete diren fiskalizatzeko eskatzen duten informazio guztia ematea.

8. – Baldin eta beste administrazio batek edo erakunde publiko edo pribaturen batek helburu bererako ematen duen beste dirulaguntza edo laguntzarik eskuratzen bada, horren berri ematea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz, beste laguntza edo dirulaguntza eskuratu izanaren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, eta, betiere, funts publikoen erabilera justifikatu aurretik.

9. – Dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat, objektiboa zein subjektiboa, aldatuz gero, horren berri ematea Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari, idatziz, egoera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, eta, betiere, funts publikoen erabilera justifikatu aurretik.

10. – Laguntzaren zenbatekoa ezartzeko kontuan hartu bada, proiektuak baloratzeko irizpide gisa, enpresaren batez besteko enplegua handitzea, 26., 31. eta 42. oinarrietan ezarritako baldintzetan, mantendu egin beharko da, gutxienez, onuradunari laguntzaren azken ordainketa egin eta hurrengo bost urteetan.

11. – Lehiatu Berriaren deialdi-aginduaren II. eta III. kapituluaren babesean emandako laguntzei dagokienez, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikulua 4. paragrafoan xedatutakoa aplikatuz, diruz lagundutako inbertsio guztietan eta horiei buruz argitaratzen den informazio edo publizitate guztian argi eta garbi adierazi beharko da finantzaketa publikoa dela: alde batetik, LGENF funtsekin, 2016/669 eta 2016/1997 Exekuzio Erregelamenduek aldatutako 808/2014 Exekuzio Erregelamenduaren 13. artikulua eta III. eranskinaren arabera, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren funtsekin, Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera (abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak arautzen du eskuliburu hori).

12. – Lehiatu Berriaren deialdi-aginduaren IV. kapituluaren babesean emandako laguntzen kasuan, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. artikulua 4. paragrafoan xedatutakoa aplikatuz, diruz lagundutako inbertsio guztietan eta horiei buruz argitaratzen den informazio edo publizitate guztian argi eta garbi adierazi beharko da finantzaketa publikoa dela: alde batetik, Europako Itsas eta Arrantza Funtzaren funtsekin, 2014ko maiatzaren 15eko 508/2014 (EB) Erregelamenduaren 119. artikulua arabera, V. eranskinean ezarritakoaren arabera, eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren funtsekin, abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuak araututako Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan ezarritakoaren arabera.

13. – Merkataritza-legeriak eskatutako terminoetan ikuskatutako kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentuak izatea, eta deialdi bakoitzean finantzatutako inbertsioarekin lotutako inbertsio eta gastu guztietarako kontabilitate-kode egoki bat edo kontabilitate-sistema bereizi bat mantentzea, araudiak ezartzen dituen kontrolak egin ahal izateko.

14. – Jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke, gutxienez 5 urtez, azken ordainketa jasotzen denetik aurrera.

15. – Laguntza onartzeak berekin dakar onuraduna eragiketen zerrenda publiko batean sartzeari. Zerrenda hori elektronikoki argitaratuko da, edo beste bitarteko batzuen bidez, Lehiatu Berriaren deialdi-aginduaren II. eta III. kapituluaren babesean emandako laguntzen kasuan, 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115.2 artikuluan eta XII.1 eranskinean aurreikusitakoaren arabera; eta, agindu honen IV. kapituluaren babesean emandako laguntzen kasuan, EIAF 508/2014 Erregelamenduaren 119.2 artikuluan eta V. eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

16. – Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzari idatziz jakinaraztea itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean sartuta dauden ala ez.